

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

UDALBATZAREN IDAZKARITZA NAGUSIA

Udaltzaingoaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko hautaketa-prozesu bateratuak kudeatzeko Gasteizko Udalaren eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren arteko kudeatze materiala enkargatzeko hitzarmena onestea

Gasteizko Udaleko Osoko Bilkurak, 2019ko apirilaren 17an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen Udaltzaingoaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko hautaketa-prozesu bateratuak kudeatzeko Gasteizko Udalaren eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren arteko kudeatze materiala enkargatzeko hitzarmena onestea.

Herritar oro jakinaren gainean egon dadin ematen da argitara, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.3.b) artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko maiatzaren 28an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE

ERANSKINA
UDALTZAINGOAREN OINARRIZKO ESKALAKO AGENTE KATEGORIAN
SARTZEKO HAUTAKETA-PROZESU BATERATUAK KUDEATZEKO GASTEIZKO
UDALAREN ETA POLIZIA ETA LARRIALDIETAKO EUSKAL AKADEMIAREN
ARTEKO KUDEATZE MATERIALA ENKARGATZEKO HITZARMENA

ELKARTUTAKOAK

Alde batetik, Malentxo Arruabarrena Julián andrea, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendari nagusia; urtarrilaren 8ko 68/2013 dekretuaren bidez izendatu zuten (urtarrilaren 16ko EHAA, 11. zk.), eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia erakunde autonomoaren ize-nean eta haren ordezkari dihardu, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 20. eta 26. artikuluen bidez eskuordetutako eskumenak baliatuz.

Beste aldetik, Gorka Urtaran Agirre jauna, Gasteizko Udaleko Alkatea, haren ordezkari diharduela.

Alderdiek, duten ordezkaritza kontuan izanik, dagozkien eskumenez baliatuz eta ordezkaritza horretatik eratorritako ahalmenak elkarri aitortuta, hau

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA. Gasteizko Udalak 2019ko ekitaldiko lan-eskaintza publikoa argitaratu du Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (2019ko martxoaren 22ko ALHAO, 35. zk.), eta, horretan, Gasteizko Udaleko udaltzaingoaren oinarrizko eskalako 39 agente-lanpostu zeuden. (Horietatik, 32 hutsik daude, eta 7, izapidetze-fasean daude).

BIGARRENA. Bi administrazio jarduleek badakite toki-esparruetan zailtasunak izaten direla udaltzaingoaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko hautaketa-prozesuak egiteko, haien kudeatze materialaren zailtasunaren ondorioz eta deialdia egiten duen erakundeari sortutako kostu ekonomikoen ondorioz, eta, horretaz gain, toki-entitate gehienek kasuan, horrelako prozesuak gauzatzeko langile espezializaturik ez edukitzearen ondorioz.

Halaber, enplegu publikoko eskaintza ugari egoteak eta zenbait toki-entitatetako azpieskala beretan sartzeko hautaketa-prozesuen deialdiak aldi berean egiteak, baliabideak sakabanarazten ditu, eta kostuak handiarazten.

HIRUGARRENA. Bi aldeak bat datoz agerian uzten zer onura dakartzan hautaketa-prozesu bateratua gauzatzeko jarduera-marko erkidea ezartzeak; marko hori aplikagarria izango zaie borondatez eta beren toki-autonomia baliatuz horretara atxikitzea erabakitzen duten EAEko toki-entitateei.

Honako onura hauek dakartza, besteak beste:

- Udaltzaingoaren oinarrizko eskalarako hautaketa-profil bera aplikatzea.
- Hautaketa-prozesu horien ezaugarriak bateratzea.
- Aldi berean hainbat hautaketa-prozesutan parte hartzen duten izangaien ihesak eragindako gailak eragozteak.
- Aurretik adierazitako arrazoi beragatik hautaketa-prozesuan zehar hutsuneak sor daitezkeen eragozteak.
- Prozesuak egiteko kostua murriztea.

LAUGARRENA. Eraginkortasun-arrazoiak direla eta, Gasteizko Udalak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari eskatzen dio behar diren jarduera tekniko eta zerbitzu-jarduera guztiak egin ditzala udaltzaingoaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko hautaketa-prozesuak gauzatzeko.

Horregatik guztiagatik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan eta Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 23.1. C eta F artikuluetan xedatutakoari jarraituz, behean izenpetzen dutenek adostu dute kudeatze materiala enkargatzeko hitzarmen hau sinatzea; honako klausula hauekin:

KLAUSULAK

LEHENENGOA. XEDEA.

Hitzarmen honen bidez, Gasteizko Udalak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiari (Akademia, hemendik aurrera) enkargatu dio behar diren jarduera tekniko eta zerbitzu-jarduera guztiak egin ditzala udaltzaingoaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko 39 lanpostutarako hautaketa-prozedurak gauzatzeko.

Akademiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste zenbait toki-korporaziotako analogo batzuek elkarrekin eta era bateratuan gauzatu dute enkargatutako hautaketa-prozedura.

BIGARRENA. DEIALDIAN ESKAINITAKO LANPOSTUEN DESKRIBAPENA.

Hautaketa-prozedura bateratuak Gasteizko Udalaren Udaltzaingoaren oinarrizko eskalako 39 agente-lanpostu eskainiko ditu, besteak beste; 2. hizkuntza-eskakizuna dute.

Eskainiko diren 39 lanpostuek 2. hizkuntza-eskakizuna izango dute. 15ek nahitaezko izango dute 2. hizkuntza-eskakizuna, igarota baitute derrigortasun-data, eta beste 24ek ez dute esleiturik derrigortasun-datarik.

Eskainitako lanpostuetarako, ITTxartela (02) eduki beharko dute (Windows, oinarrizko Word, oinarrizko Internet).

Administrazio Bereziko Taldekoak, Zerbitzu Berezien Azpitaldekoak eta Udaltzaingoa Klasekoak dira; eta Eskaintza Profesionaleko CTaldean eta C2 Azpitaldean daude (Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen hirugarren aldaketako maiatzaren 28ko 2/2008 Legean ezarritakoa ezertan eragotzi gabe), eta 2019ko lan-eskaintza publikokoari dagozkie.

HIRUGARRENA. KUDEATZE-GOMENDIOAREN ERAGIN-ESPARRUA.

Akademiak egingo ditu hautaketa-prozedura gauzatzeko eta egiteko behar diren jarduera material zein tekniko guztiak. Horretaz gain, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko ditu deialdiko oinarri bateratu espezifikoak, eta, horietan, eskainitako lanpostuen deskribapenaz gain, honako kontu hauek ere adierazi behar dira:

1. Deitutako lanpostu kopurua handitu ahal izango da, Gasteizko Udalean Udaltzaingoaren oinarrizko eskalako agente kategorian hautaketa-prozedura egiten den bitartean geratzen diren lanpostu hutsen arabera, betiere legez ezarritako baldintzetan.

2. Honako dekretu hauetan ezarritako eskakizunak bete beharko dira parte hartzeko: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, eta Euskal Autonomia Erkidegoko polizia hautatzeko eta prestatzeko araudia onartzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretua.

3. Izangaiek egiaztatu beharko dute B gidabaimena daukatela indarrean eskabideak aurkezteko azken egunean. Horretaz gain, A2 gidabaimena indarrean izan beharko dute lanpostuak adjudikatzeko Epaimahaiak ezartzen duen egunaren bezperan. Eta A gidabaimena indarrean izan beharko dute karrerako funtzionario izendatu aurretik.

4. Horretarako Akademiak ezartzen duen prozedura elektronikoaren bidez bete eta aurkeztu beharko dituzte eskabideak. Eskabideak aurkezteko epea ezin izango da izan hamabost egun baliodun baino laburragoa, ez eta 30 egun baliodun baino luzeagoa ere, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian deialdi bateratua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

5. Akademiak epaimahai kalifikatzaile bat izendatuko du, hautaketa-prozedura finkatzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko, eta parte-hartzaileak aukeratzeko. Epaimahaiari aplikagarri izango zaio otsailaren 28ko 4/2005 Legean ezarritakoa, eta honako hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: Akademiak izendatutako pertsona bat.
- Lau kide: deialdi bateratuan parte hartzen duten udaletako langileen artean EUDELeK proposatuta izendatuko dira (bi udaltzaingoetakoak izango dira, eta beste biak funtzio publikoko edo giza baliabideetako funtzionarioak izango dira).
- Idazkaria: Akademiak izendatuko du; hitz egitea izango du, baina botoa ematerik ez.

6. Oposizio-lehiaketa askea izango da hautaketa-sistema, Euskal Autonomia Erkidegoko polizia hautatzeko eta prestatzeko araudia onartzen duen uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoaren ildotik.

7. Proba teorikoak Toki Administrazioako funtzionarioen hautaketa-prozeduraren gutxieneko programak eta oinarrizko arauak onesten dituen ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera izango dira.

8. Merezimendu-lehiaketaren fasean, baloratu beharko dira udaltzaingoetan udaltzaingoaren oinarrizko eskalako agente lanean egindako zerbitzuak. Egindako zerbitzu horien balorazioa, gutxienez, oposizio-fasean lortu ahal izango den gehieneko puntuazioaren ehuneko 25ekoa izango da, eta, gehienez, haren ehuneko 30ekoa.

9. Euskararen ezagutza egiaztatzeko, dokumentuak aurkeztu ahal izango dira, edo dagozkion probak egin ahal izango dira prozesua egiten den bitartean. Euskara-probak egiteko, IVAPen laguntza izango du Akademiak. Nahitaezko hizkuntza-eskakizuna duten lanpostuei dagozkien plazak betetzeak lehentasuna izango du, eta, horrenbestez, horiek adjudikatuko dira lehenago. Euskara betekizun ez den plazetan, uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan araututakoaren arabera balioetsiko da euskara.

10. Epaimahaiak argitaratu beharko ditu lehiaketa-oposizioa gaingitu dutenen zerrenda eta hautatutako pertsonen zerrenda.

11. Hautaketa-prozesuari loturiko argitalpenak Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren iragarki-taulan egingo dira; horretaz gain, informazio moduan, erakunde autonomoaren webgunean ere argitaratuko dira, eta deialdi bateratuan parte hartzen duten toki-korporazioei ere helaraziko zaie. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren iragarki-taulan argitaratzen deneko data izango da erabakigarria epeak zenbatzeko.

12. Dagokion udalak eskakizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, praktiketako funtzionario izendatuko ditu hautatutakoak.

13. Nahitaezkoak eta baztertzailak izango dira prestakuntza-ikastaroa eta praktika-aldia, zein bere aldetik, eta, lehiakideren batek gaingitzen ez baditu hautaketa-prozeduratik kanpo geratuko da; Gasteizko Udaltzaingoaren oinarrizko eskalako agente kategorian sartzeko eskubideak oro galduko dituzte haiek gaingitu ez dituztenek. Ezin izango dira aldi berean egin, eta bien iraupen metatua ezin izango da izan 30 hilabetetik gorakoa.

14. Prestakuntza-ikastaroa ikasturte akademiko bat izango da, nahitaezkoa eta baztertzaila. Akademiak ezarritako ikasketa-planean eta aplikatzekoa araudiak zehaztuko dituzte edukiak, ebaluatzeko eta gaingitzeko moduak eta iraupena. Hamaikagarren puntuan ezarritako moduan argitaratuko ditu Akademiako zuzendari nagusiak prestakuntza-ikastaroko kalifikazioak. Halaber, Akademiako zuzendari nagusiak aginduko du kanpoan uzteko prestakuntza-ikastaroa gaingitu ez dutenak.

15. Prestakuntza-ikastaroa gainditzen dutenek praktika-aldia egingo dute dagozkien udaltzaingoetan. Praktika-aldia hasi aurretik, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiak praktika-aldiaren iraupena eta praktikak balioesteko eta gainditzeko sistema eta prozedurak zehaztuko ditu ebazpen bitartez. Praktika-aldian zehar udaltzaingoko oinarritzko eskalako agente kategoriari dagozkien zereginekin lotutako eraginkortasun profesionala balioetsiko da. Akademiako zuzendari nagusiak argitaratuko ditu praktika-aldiko kalifikazioak. Halaber, Akademiako zuzendari nagusiak aginduko du kanpoan uzteko praktika-aldia gainditu ez dutenak.

16. Praktika-aldia amaitu eta hurrengo bi hilabeteetan, eta Akademiako zuzendari nagusiak proposatuta, dagokion udaleko alkateak karrerako funtzionario izendatuko ditu hautaketa-prozedura gainditu dutenak, udaltzaingoaren oinarritzko eskalako agente gisa.

17. Dagokien udalak ordainduko dizkie ordainsariak praktiketako funtzionarioei. Era berean, dagokien udalak emango dizkie armak, dokumentazioa eta ekipoa.

18. Akademiako barne araubideko araudia eta Barne Araubideko Erregelamendua aplikatuko zaizkie praktiketako funtzionarioei. Halaber, egintza irakaskuntzako huts egite soila ez den kasuetan, era gehigarrian aplikatuko zaizkie Euskal Autonomia Erkidegoko polizia-kidegoen diziplina-araubideko araudiak. Gorago aipatutako arauetan astuntzat edo oso astuntzat jotzen den arau-hauste bat egiteagatik ezartzea berariazko arrazoia izango da hautaketa-prozeduratik automatikoki kanpoan uzteko, bai eta prozedura horretatik udaltzaingoaren oinarritzko eskalako agente kategorian sartzeko eratorritako eskubide guztiak galtzeko ere.

19. Prestakuntza-ikastaroari aplikatzekoak zaizkion ebaluatze-irizpideen arabera, ikerketa-planean jasotako gaien ebaluazio partzialetik ondorioztatzen bada prestakuntza-ikastaroa gainditzeko ezintasun materiala, Akademiako zuzendari nagusiak proposatuta, dagokion udaleko alkateak agindu ahal izango du kanpoan uzteko praktiketako funtzionarioa, hari entzunaldia eman ondoren.

20. Prestakuntza-ikastaroan edo praktika-aldian hautaketa-prozeduratik kanpo utzitakoek dagokien udalari itzuli beharko dizkiete armak, dokumentazioa eta eman zaien ekipa guztia.

21. Hautaketa-prozedura gainditzen dutenak karrerako funtzionario izendatuko ditu dagokien udaleko alkateak, udaltzaingoaren oinarritzko eskalako agente gisa.

LAUGARRENA. KUDEATZE-GOMENDIOAREN BALDINTZAK.

Gasteizko Udalak:

a) Kudeatze materiala enkargatzeko hitzarmen honen bidez egikaritzea enkargatzen diren eskumenen titulartasunari eutsiko dio.

b) Kudeatzea enkargatu den hautaketa-prozesuari dagokion enplegu-eskaintza publikoa onetsi eta argitaratuko du, deialdi bateratua argitaratzen den baino lehenago.

c) Prozesua behar bezala garatzeko behar diren laguntza materiala eta informazio zehatza emango dizkio Akademiari.

d) Hautaketa-fasea amaitzean, deitutako lanpostuen adjudikaziodun suertatzen diren pertsonak praktiketako funtzionario izendatuko ditu, eta, hautaketa-prozesua amaituta, karrerako funtzionario.

e) Lagunduko du deialditik eratorritako gastuak finantzatzen, bosgarren klausulan ezarritakoari jarraituz.

Hirugarren klausulan enkargatzen zaizkion jarduketak gauzatzeaz gain, Akademiak:

a) Ariketak materialki gauzatzeko behar den operatiboa kudeatuko du: lokalak kontratatzea kudeatzea; lokalak hornitzea hautaketa-probak egiteko; hautaketa-prozesurako zainzaileak kontratatzea kudeatzea; oposizioaren probak itzultzea eta erreproduzitzea; probak banatzea eta jasotzea haiek egin behar diren egunean; baita hautaketa-prozesu jendetsua egokiro gauzatzeko behar diren jarduketak guztiak ere: zaintza, premia bereziak dituzten pertsonen arreta egitea, eta abar.

b) Behar diren adinako bitartekoak jarriko ditu hautaketa-prozesuak eraginkortasunez egin daitezela berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak errespetatuta, eta, horrekin batera, datu pertsonalen babesari buruz indarrean dagoen araudia errespetatuz.

BOSGARRENA. FINANTZAKETA.

Akademiak ordainduko ditu kudeatze-gomendioa gauzatzetik eratorritako gastuak.

Gasteizko Udalak oposizio-fasea gaindituta bera destino gisa aukeratu duten pertsonari ordainduko die, aplikatzekoa den bere araudiari jarraituz, prestakuntza- eta praktika-aldia irauten duen bitartean. Halaber, behar dituzten armak, dokumentazioa eta ekipoa emango dizkie.

SEIGARRENA. SUNTSIARAZTEA.

Bi aldeetako edozeinek suntsiaraz dezake kudeatze materiala enkargatzeko hitzarmen hau; alde aurretik jakinarazi behar dio beste aldeari, gutxienez sei hilabete lehenago, eta betiere bermatu behar da suntsiarazten den unean gauzaten ari diren jarduketek behar duten jarraitutasuna. Bestela adostu ezean, jakinarazi eta hamabost egunera izango eragina.

Honako hauek izango dira kudeatze materiala enkargatzeko hitzarmen hau suntsiarazteko arrazoiak:

- A) Aldeetako edozeinek hitzarmena salatzea.
- B) Hitzarmeneko klausulak ez betetzea.
- C) Bi aldeek hala erabakitzea.

ZAZPIGARRENA. IRAUPENA.

Kudeatze materiala enkargatzeko hitzarmen honek ondorioak izango ditu sinatzen den egunetik aurrera, eta urtebeteko indarraldia izango du; dena den, urtebeteko epe hori amaitu aurretik, aldeek edozein unetan adostu dezakete eskainitako lanpostuak hartu behar dituzten pertsonak karrerako funtzionario izendatu arte hitzarmena luzatzea.

ZORTZIGARRENA. IZAERA ETA JURISDIKZIOA.

Kudeatze materiala enkargatzeko hitzarmen honek izaera administratibo du; horrenbestez, administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenaren eskumenari jarraituz ebatziko da hitzarmena interpretatzean edo betetzean gertatzen den edozein auzigai.

Bi aldeek irakurri dute, eta kudeatze materiala enkargatzeko hitzarmen honetan adierazitakoarekin ados daudela erakusteko, bina aletan sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean, eta honetan ezarri diren klausulekin bat eginez.